

DOITU lantegia: Zer hobetu dezaket nire irakaskuntzaren plangintzan?

ECTS kreditu-kopurua: 1,5

Kodea: EO2201

Hartzaileak

Ikastaro hau, irakasten alde aurretiko eskarmentua izanik, irakasgai jakin bateko plangintzan, garapenean eta ebaluazioan hobekuntzak sartu nahi dituzten irakasleei zuzenduta dago, tituluaren ezarritako jarraibideekin eta IKDi³ estrategiarekin bat eginda etor daitezten. Alderdi hauek Docentiaz UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programaren baitan Irakasleen Gidak ebaluatzeko kalitate irizpide gisa hartzen dira.

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Unibertsitatean irakasleek euren irakasgaia planifikatzearen erronkari aurre egin behar diote, irakasleen ikaskuntza emaitzarik hoberenak lortzeko. Ikastaro honetako parte-hartzaile bakoitzak, irakasgai jakin batean alde aurretik izan duen esperientziaren azterketatik abiatuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hobetu beharreko alderdiak identifikatu beharko ditu, irizpide zientifiko eta akademikoei eta UPV/EHUren IKDi³ estrategiari jarraituz eta Docentiaz programaren irizpideei modu arrazoituan erantzunez. Ikastaro teoriko-praktikoa da, eta prestatzaileek gidariarena egingo dute, parte-hartzaileek ikaskuntza autonomia eta elkarlanekoa sustatzen dituzten estrategiak eta teknikak eskura ditzaten, ebaluazio etengabe eta formatiboa bermatuz.

Horretarako parte-hartzaile bakoitzak, ikasgaiaren gida ofiziala eta bere alde aurretiko eskarmentua kontuan izanik, bere plangintza hartu eta doituko du ikasle gida bihur dadin. Irakasle gidak bi eginkizun ditu: irakasgaia aurkezteko bitarteko nagusia da eta, ikasturtean zehar, irakasle eta ikasleentzako ibilbide-orri gisa erabiltzen da. Helburua honako hau izango da: ongi egituraturako gida osatuak izatea, ikaskuntza bermatzeko informazio nahikoa dutenak, argi idatzita eta irakasleek ulertzeko modukoak. Horrez gain, ikaskuntza jardueraren jakin bat ere aztertuko da, metodologia aktibo eta kooperatiboarekin (IKDrekin) bat datorrena eta testuinguruari egokitutako ebaluazio formatibo eta etengabeaz lagunduta dagoena.

Ikastaroaren ikaskuntza-emaitzak

1. Norberaren irakaslanean hobekuntza alderdiak identifikatu, indikatzaileen eta erreferentziazko ereduak aztertuz
2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ezartzea, ikasleen ikaskuntza autonomia eta lankidetzakoa ardatz izango dituen.
3. Ezarritako ikaskuntza-emaizak garatzeko metodologia eta jarduera aproposak aplikatzea.
4. Etengabeko ebaluazio proposamen formatiboak zehaztea, ikasleak ikasketa emaitzak lortzera bideratuko dituztenak.
5. Irakaskuntzaren plangintza doitzeta, zehazki ikasle gida, irakasgaiaren eta IKD ereduaren arabera ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren garapena ahalbidetzeko moduan.

Gaiak

- Irakaskuntzan hobetu daitezkeen alderdiak: nola aztertu. Ereduak
- Irakasgaia graduaren testuinguruan. Irakasgaiaren gida eta ikasleen gida
- Gaitasunak eta Ikaskuntzaren emaitzak.
- Ikaskuntza dinamikoa eta lankidetzakoa. Ikaskuntza autonomia
- Ikaslea ardatz duten metodologiak. Jarduerak.
- Etengabeko ebaluazioa. Ebaluazio hezitzailea. Feedback-a
- Ebaluazio irizpideak
- Ongi lerrotutako irakaskuntza-ikaskuntza

Zereginak

Ikaskuntza emaitza	Zeregina	Parte-hartzaileak eman beharreko denbora ¹
1	- Irakaslanean hobetu beharreko alderdiak identifikatzea irakasgai batean	2P+2EP
1, 2 eta 3	- Irakasgaiko ikaskuntza-emaizten garapenean ikaskuntza autonomorako eta lankidetzako ikaskuntzarako estrategia egokienak hautatzea eta deskribatzea	2P+6EP
4	- Irakasgaiaren testuingururako eta ikasketa emaitzen lorpena ebaluatzeko tresna egokienak hautatzea eta deskribatzea	2P+6EP
1, 4 eta 5	- Irakasgai bateko irakaskuntzaren plangintza eta ebaluazio sistema egokiak dituen Ikasle Gidaren atal guztiak osatzea	6P+12EP

Ebaluazioa / Akreditazioa

Akreditazioa eskuratzeko bete behar diren betekizunak:

-Gutxienez ordu presentzialen %75eko asistentzia.

-Ikastaroan zehar ezarritako jarduerak eta entregagai guztiak burutzea (Hobetu beharreko alderdiei buruzko txostena, Ikaskuntza jarduera bat eta doitutako Ikasle Gida) bakoitzean zehazturiko irizpideen arabera ebaluatuko direnak.

Ikaskuntza emaitza	Ebaluazio-tresna	Ebaluazio-irizpideak
--------------------	------------------	----------------------

¹ Ordu presentzialak (P) eta ez-presentzialak (EP)

1	Hobetu beharreko alderdiei buruzko txostena	Indarrak eta ahuleziak identifikatzea
1, 2 eta 3	Ikaskuntza jarduerak hautatzea	Estrategiak ikaskuntza emaitzekin koherenteak izatea Ikaslearen autonomiaren eta lankidetzaren sustapena
1, 4 eta 5	Irakaskuntzaren plangintza eta ebaluazioa (Ikasle Gida).	IKD eredurako eta gradurako egokia Tekniken askotarikotasuna eta egokitasuna Ikaslearen autonomiaren eta lankidetzaren sustapena Ebaluazio etengabe eta formatiboa Ebaluazio irizpideen koherentzia eta argitasuna Gidako elementu guztien lerrokadura

Datuak

Iraupena

12 ordu presentzial (online sinkronoa) eta 26 ez-presentzial

Datak

Astearteetan, Otsailaren 1, 8, 15, 22 eta Martxoaren 1 eta 8

Ordutegia

11:00-13:00

Tokia

eGelapi eta Webex. Onartuak diren pertsoneri jakinaraziko zaie.

Parte-hartzaile kopurua

24 gehienez

Hizkuntza

Euskara

Campusa

Online sinkronoa

Irakaslea:

Mikel Garmendia

Izena emateko epea

Deialdia zabaldu eta astebetetz luzatuko da izena emateko epea

Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Inskripzioa langilearen atariaren bidez egingo da. Plaza kopurua mugatua denez, iRAKER programako partaideek lehentasuna izango dute. Horrez gain parte-hartzaileak izena emateko ordenaren eta hautaketaren lehentasunaren arabera hautatuko dira.

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko.